

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, OSAKIDETZA-OSASUNAREN EUSKAL ZERBITZUA ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2019.

Joan den azaroaren 18an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen Osakidetza-Osasunaren Euskal Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren ekonomia eta finantzaren gaineko kudeaketaren fiskalizazio txostena, 2019ko ekitaldiari dagokiona; baita, Osatek SArena ere, zeinetan Osakidetzak baltzu kapitalaren % 100aren jabetza baitu.

Bi erakundeen **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du; salbuespen da Osakidetzaren kasuan, langileria jakin baten erretiro osagarriengatik geroko ekitaldietan ordaindu beharreko obligazioak kontabilizaturik ez izatea (gastu hauek ordaindu ahala kontabilizatzen dira); honela, bada, 2019ko abenduaren 31n kontabilizatzeko dagoen zenbatekoa 91 milioi euro dela balioetsi da.

Txostenak ondorioztatu du bai Osakidetzak bai Osatek SAk **zuzentasunez bete dutela** 2019ko ekitaldian ekonomiaren eta finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia; alabaina, ikusi da Osakidetzak kontratu txiki modura izapidetu dituela botika eta bestelako hornigaien erosketak, 25 eta 77,7 milioi euroren zenbatekoarekin, eta honenbestez, zatikatu egin duela kontratazioaren xedea.